2.– Irakasleen eta ikertzaileen ordezkaritza organoak beren arauen bidez eta estatutu hauetan xedatutakoari jarraiki arautuko dira.

3.– Hauek dira, besteak beste, irakasleen eta ikertzaileen ordezkaritza organoen betekizunak:

a) Irakasleen eta ikertzaileen lan baldintzen negoziazio kolektiboa.

b) Irakasleen eta ikertzaileen defentsa lan gatazketan eta diziplina espedienteetan, interesdunak beren- beregi eskatuz gero.

c) Ondoko zereginetan parte hartzea, estatutu hauetan adierazitako moduan: irakasleen eta ikertzaileen politika zehazteko lanetan; lanpostuen zerrenda definitzeko irizpideak prestatzeko zereginetan, bai eta irakasleak eta ikertzaileak ebaluatzeko irizpideak prestatzeko zereginetan ere; irakasleen eta ikertzaileen hobekuntza eta prestakuntza programak aurrera eramateko beharrean; eta esleitu ahal izango zaizkien gainerakoetan.

## IV. KAPITULUA
## ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEAK

***50. artikulua.–*** 1.– Honako hauek izango dira UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako langile:

a) Langile funtzionarioak.

b) Lan kontratudun langileak.

c) Beste administrazio publiko batzuetako funtzionarioak, indarreko legeriari jarraiki UPV/EHUn lanean jarduten dutenak.

2.– Konfiantzako langileak ere administrazio eta zerbitzuetako langile izango dira. Honako hauek izango dira konfiantzako langileak: konfiantzako lanpostuak edo aholkularitza berezia emateko lanpostuak beteko dituztenak, baldin eta karrerako funtzionarioentzat eta lan kontratu finkoko langileentzat ez badira. Konfiantzako lanpostu horiek ezaugarri horrekin agertu beharko dira lanpostuen zerrendan. Langile horiek errektoreak izendatuko ditu eta lanpostutik ere berak kenduko ditu, nahi duenean. Edozein modutan ere, lanpostua utzi beharko dute errektoreak kargua uztean.

***Artículo 49.–*** 1.– Los órganos de representación del personal docente e investigador son:

a) La Junta de personal docente e investigador, órgano de representación unitaria del personal docente e investigador funcionario.

b) El Comité de Empresa, órgano de representación unitaria del personal contratado.

c) Las Secciones Sindicales, órganos de representación sindical del personal docente e investigador funcionario y contratado con implantación en la UPV/ EHU.

2.– Los órganos de representación del personal docente e investigador se regirán por sus normas específicas y por lo dispuesto en los presentes Estatutos.

3.– Entre las funciones de los órganos de representación del personal docente e investigador estarán:

a) La negociación colectiva de las condiciones de trabajo del personal docente e investigador.

b) La defensa del personal docente e investigador en los conflictos laborales y en los expedientes disciplinarios a petición expresa de la persona incoada.

c) La participación, en los términos recogidos en estos Estatutos, en la definición de la política de personal docente e investigador, en la elaboración de los criterios para la definición de la Relación de Puestos de Trabajo, así como para la evaluación del personal docente e investigador y en el desarrollo de programas de formación y perfeccionamiento del mismo, o cualquier otra que le sea asignada.

## CAPÍTULO IV
## DEL PERSONAL DE ADMINISTRACIÓN Y SERVICIOS

***Artículo 50.–*** 1.– El personal de administración y servicios de la UPV/EHU estará formado por:

a) Personal funcionario.

b) Personal contratado laboral.

c) Funcionarios y funcionarias de otras Administraciones Públicas que, de acuerdo con la legislación vigente, presten servicio en la UPV/EHU.

2.– Asimismo, formará parte del personal de administración y servicios el personal eventual. Se considera personal eventual el nombrado para el desempeño de puestos que, considerados de confianza o asesoramiento especial y no reservados al funcionariado de carrera ni a personal laboral fijo, figuren con tal carácter en la Relación de Puestos de Trabajo de la UPV/EHU. Su nombramiento lo hará la Rectora o Rector, que podrá cesarlo discrecionalmente y que, en todo caso, cesará cuando lo haga el Rector o Rectora.

***51. artikulua.–*** 1.– Administrazio eta zerbitzuetako langileak arduratuko dira kudeaketa administratibo, ekonomiko eta teknikoaz eta, halaber, laguntza eta aholkularitza emango diete UPV/EHUko egiturei eginkizunak aurrera eraman ditzaten.

2.– Administrazio eta zerbitzuetako langileek laguntza eta aholkularitza emango diete agintari akademikoei eta, orobat, kudeaketa eta administrazioaz arduratuko dira, nagusiki arlo hauetan: giza baliabideak, antolakuntza administratiboa, gai ekonomikoak, informatika, artxiboak, biblioteka, informazioa, zerbitzu orokorrak, eta zerbitzu zientifiko eta teknikoak. Laguntza eta aholkularitza emango diete, baita ere, ikerketari eta teknologiaren transferentziari eta UPV/EHUk helburuak betetzeko kudeaketa administratiboaren alorrean beharrezko dituen bestelako prozesuei.

***52. artikulua.–*** 1.– Administrazio eta zerbitzuetako langile funtzionarioak honako hauen bidez arautuko dira: Estatutuak, unibertsitate legeria, Euskal Autonomia Erkidegoak bere eskumenen esparruan emandako arauak, enplegatu publikoari buruzko arautegia eta UPV/EHUko lan baldintzak arautzeko hitzarmenak.

2.– Administrazio eta zerbitzuetako lan kontratudun langileak honako hauen bidez arautuko dira: Estatutuak, unibertsitate legeria, enplegatu publikoari buruzko arautegia, lan arloko legeria eta hitzarmen kolektibo aplikagarriak.

***53. artikulua.–*** Gobernu Kontseiluak erabakiko ditu administrazio eta zerbitzuetako langileen ordainsariak, kontuan hartuta otsailaren 25eko 3/2004 Legeak, Euskal Unibertsitate Sistemari buruzkoak, xedapen gehigarrietatik bederatzigarrenean zehaztutakoa. Ordainsari horiek aldez aurretik administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkaritza organoekin negoziatuko dira, indarreko legeriari jarraituz.

***54. artikulua.–*** UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako langileek eskubide hauek izango dituzte, indarrean dagoen legerian eta estatutu hauetan jasotako beste eskubideez gain:

a) Lanak edo eginkizunak behar bezala betetzea, eta lanpostutik kenduak ez izatea, arrazoirik edo bermerik jaso gabe.

b) Beteko duten lanpostuari dagozkion ordainsariak jasotzea, UPV/EHUko lanpostuen zerrendaren arabera.

c) Lana aurrera eramateko eta lanpostuari lotutako eginkizunak ezagutzeko beharrezkoak izango diren bitartekoak eta informazioa izatea.

d) Promoziorako bidea emango duen etengabeko prestakuntza profesionala jaso eta karrera profesionala aurrera eramatea.

***Artículo 51.–*** 1.– Corresponde al personal de administración y servicios la gestión administrativa, económica y técnica, así como el apoyo, asesoramiento y asistencia en el desarrollo de las funciones de la UPV/EHU.

2.– Corresponde al personal de administración y servicios el apoyo, asistencia y asesoramiento a las autoridades académicas, el ejercicio de la gestión y administración, particularmente, en las áreas de recursos humanos, organización administrativa, asuntos económicos, informática, archivos, bibliotecas, información, servicios generales, servicios científico-técnicos, así como el soporte a la investigación y a la transferencia de tecnología y a cualesquiera otros procesos de gestión administrativa y de soporte que se determine necesario para la UPV/EHU en el cumplimiento de sus objetivos.

***Artículo 52.–*** 1.– El personal funcionario de administración y servicios se regirá por estos Estatutos, por la legislación universitaria, por la normativa dictada por la Comunidad Autónoma Vasca en el marco de sus competencias, por la normativa del empleado público, así como por los acuerdos reguladores de las condiciones de trabajo de la UPV/EHU.

2.– El personal laboral de administración y servicios se regirá por estos Estatutos, por la legislación universitaria, por la normativa del empleado público, por la legislación laboral y los convenios colectivos aplicables.

***Artículo 53.–*** El Consejo de Gobierno, previa negociación con los órganos de representación del personal de administración y servicios en los términos establecidos en la legislación vigente, y en el marco de la Disposición Adicional 9.ª de la Ley 3/2004, de 25 de febrero, del Sistema Universitario Vasco, establecerá el régimen retributivo del personal de administración y servicios.

***Artículo 54.–*** El personal de administración y servicios de la UPV/EHU, además de los reconocidos en la legislación vigente y en estos Estatutos, tendrá los siguientes derechos:

a) Al desempeño efectivo de tareas o funciones y a no ser removido, injustificadamente y sin las debidas garantías, de su puesto de trabajo.

b) A percibir las retribuciones pertinentes en razón del puesto de trabajo desempeñado según la correspondiente Relación de Puestos de Trabajo de la UPV/EHU.

c) A disponer de los medios adecuados y de la información necesaria para el desempeño de sus tareas y conocer las funciones asignadas a su puesto de trabajo.

d) A la formación profesional permanente y a desarrollar una carrera profesional en la que se contemple su promoción.

e) Kalitate edo hobekuntza prozesuetan parte hartzea eta ezagutzea beren lana ebaluatzeko erabiliko diren irizpideak eta prozedurak, bai eta ebaluazioen emaitzak ere.

f) ) Askatasunez sindikatzeko eskubidea, eta negoziazio kolektiboa eta greba askatasunez egitekoa

g) Lana eta familiako bizitza bateratzeko erraztasunak izateko eskubidea.

h) Benetako genero berdintasunerako eskubidea, lanpostuak eskuratzeko prozesuetan, zereginak eta jarduera profesionala betetzean eta karrera profesionalean.

***55. artikulua.–*** UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako langileek betebehar hauek izango dituzte, indarrean dagoen legerian eta estatutu hauetan jasotako beste betebeharrez gain:

a) Izendapeneko edo kontratuko betekizunak betetzea, modu horretara UPV/EHUk bere helburuak bete eta kalitatea eta funtzionamendua hobetu ditzan, zerbitzu publikoa den aldetik.

b) Zerbitzuaren funtzionamendu egokia ziurtatzea, nagusiak, lankideak edo menpekoak bertan ez daudenean.

c) Prestakuntza eta kualifikazio profesionalak eguneratuta izatea, eta prestakuntzako jardueretan parte hartzea.

d) Beren jarduna ebaluatu eta kontrolatzeko prozeduretan parte hartzea. Prozesuok, aldez aurretik, langileen ordezkaritza organoekin negoziatuko dira.

e) Eginkizunak aurrera eramatean zerbitzu publikoa izatearen printzipioa betetzea eta, hortaz, prin- tzipio horren kontrako portaerarik ez izatea, ezta ere zerbitzu publikoen neutraltasuna zalantzan jar dezakeen bestelakorik.

f) ) Betetzen duen karguagatik dakizkien gaien inguruko diskrezioa gordetzea, eta informazio hori ez erabiltzea bere mesederako edo beste batzuen mesederako, ezta ere interes publikoa kaltetzeko.

***56. artikulua.–*** 1.– Gobernu Kontseiluak onartu behar ditu administrazio eta zerbitzuetako langileen kidegoak eta eskalak. Aldez aurretik, langileen ordez- karitza organoekin negoziatuko da.

2.– Lan kontratudun langileen sailkapena indarreko hitzarmen kolektiboaren araberakoa izango da.

***57. artikulua.–*** 1.– Erreferentziako plantilla izango da administrazio eta zerbitzuetako langileen politika planifikatzean kontuan hartuko den lehen irizpidea.

2.– Erreferentziako plantilla zehaztu eta definitzean kontuan hartuko dira Gobernu Kontseiluak unibertsitateak campusetan zerbitzua behar bezala

e) A participar en los procesos de calidad o mejora, con conocimiento de los criterios, procedimientos y resultados de las evaluaciones que afecten a las funciones que desempeñe.

f) ) A ejercer libremente los derechos de sindicación, negociación colectiva y huelga.

g) A medidas que favorezcan la conciliación de la vida personal, familiar y laboral.

h) A la efectiva igualdad de género en el acceso, desempeño de las tareas y actividades profesionales, así como en el desarrollo de la carrera profesional.

***Artículo 55.–*** El personal de administración y servicios de la UPV/EHU, además de los establecidos en la legislación vigente y en estos Estatutos, tendrá los siguientes deberes:

a) Cumplir las obligaciones propias de su nombramiento o contrato, contribuyendo a los fines y me- jora de la calidad y del funcionamiento de la UPV/ EHU como servicio público.

b) Asegurar la continuidad en la buena marcha del servicio, en los supuestos de ausencia de las personas jerárquicamente superiores, compañeras o subordinadas.

c) Mantener actualizada su formación y cualificación profesionales y participar en las actividades destinadas a su perfeccionamiento.

d) Participar en los procedimientos de evaluación y control de su actividad, negociados previamente con sus órganos de representación.

e) Ejercer sus atribuciones según el principio de dedicación al servicio público absteniéndose no solo de conductas contrarias al mismo, sino también de cualesquiera otras que comprometan la neutralidad en el ejercicio de los servicios públicos.

f) ) Mantener la debida discreción sobre aquellos asuntos que conozca por razón de su cargo, sin que pueda hacer uso de la información obtenida para beneficio propio o de terceros, o en perjuicio del interés público.

***Artículo 56***.– 1.– Corresponde al Consejo de Gobierno la aprobación de los Cuerpos y Escalas del personal de administración y servicios. Para ello, con carácter previo, se negociará con sus órganos de representación.

2.– El personal laboral se clasificará conforme a su Convenio Colectivo en vigor.

***Artículo 57.–*** 1.– La Plantilla de Referencia se constituye como el criterio prioritario de planificación de la política de personal de administración y servicios.

2.– La determinación y configuración de la Plantilla de Referencia se realizará de acuerdo con los criterios establecidos por el Consejo de Gobierno para

emateko xedez onartutako irizpideak. Aldez aurretik, langileen ordezkaritza organoekin negoziatuko da.

*58. artikulua.–* 1.– UPV/EHUk lanpostuen zerrenden edo antzeko tresnen bitartez antolatuko du bere egitura. Tresna horietan, gutxienez, honako hauek jasoko dira: lanpostuen izenak, lanpostuak admi- nistrazioko zein unitateri dauden atxikita, sailkapen profesionaleko taldeak, kidego edo eskalak, egoki izanez gero, hizkuntza eskakizuna eta derrigortasun data, bai eta lanpostuak betetzeko sistemak eta ordainsari osagarriak ere.

2.– Gobernu Kontseiluak ontzat eman beharko ditu tresna horiek, organo eskudunaren proposamena jasota eta, aldez aurretik, langileen ordezkaritza organoekin negoziatuta. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira, bai eta tresna horien aldizkako eguneratzeak ere.

*59. artikulua.–* 1.– UPV/EHUk, bere autonomiaz baliatuta, administrazio eta zerbitzuetako langileak hautatuko ditu, funtzionarioak zein lan kontratudunak. Lan eskaintza publikoa egingo du horretarako, deialdi publikoaren bidez, eta indarrean egongo den legerian jasotako sistemen bitartez hautatuko ditu langileak. Edonola ere, berdintasun, merezimendu, gaitasun eta zabalkunde printzipioak bermatuko ditu.

2.– Langileak hautatzeko prozesuetan arreta berezia jarriko da prozesu horietan egingo diren probak bat etor daitezen lanpostuan bete beharreko eginkizunekin, indarreko legeriari jarraiki.

*60. artikulua.–* UPV/EHUren lan eskaintzan jasotako plaza hutsak betetzeko egingo diren hautatze probetako deialdia Gobernu Kontseiluak onartuko du, kontuan hartuta errektorearen proposamena, eta administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkaritza organoekin negoziatu ondoren, indarreko legerian adierazitako moduan. Deialdi hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

*61. artikulua.–* UPV/EHUko langile funtzionarioak edo lan kontratu finkoko langileak hautatzeko egingo diren probetako oinarrietan honako hauek adierazi beharko dira, nahitaez:

a) Lanpostu hutsen kopurua; taldea, kidegoa eta eskala edo lan kategoria; eta barne sustapenerako izango diren lanpostuen ehunekoa.

b) Lehiakideek bete beharko dituzten baldintzak.

c) Probak, programak eta merezimenduen zerrenda, baldin badaude; era berean, lehiakideak baloratzeko irizpideak eta arauak.

d) Langileak hautatuko dituen epaimahai edo organo teknikoaren osaera.

garantizar una adecuada prestación del servicio universitario en cada campus. Para ello, con carácter previo, se negociará con sus órganos de representación.

*Artículo 58.–* 1.– La UPV/EHU estructurará su organización a través de relaciones de puestos de trabajo u otros instrumentos organizativos similares que comprenderán, al menos, la denominación de los puestos, la adscripción del puesto a una unidad administrativa, los grupos de clasificación profesional, los cuerpos o escalas, en su caso, el perfil lingüístico y la fecha de preceptividad, si procediere, así como, los sistemas de provisión y las retribuciones complementarias.

2.– Dichos instrumentos se aprobarán por el Consejo de Gobierno a propuesta del órgano competente, previa negociación con sus órganos de representación, y se publicarán en el Boletín Oficial del País Vasco, así como sus actualizaciones periódicas.

*Artículo 59.–* 1.– En ejercicio de su autonomía, la UPV/EHU seleccionará a su personal de administración y servicios, funcionario o contratado laboral, de acuerdo con su oferta pública de empleo, mediante convocatoria pública y a través de los sistemas que establezca la legislación vigente, en los que se garantizarán, en todo caso, los principios de igualdad, mérito y capacidad, así como el de publicidad.

2.– Los procedimientos de selección cuidarán especialmente la conexión entre el tipo de pruebas a superar y la adecuación al desempeño de las tareas de los puestos de trabajo convocados, de conformidad con la legislación aplicable.

*Artículo 60.–* La convocatoria de las pruebas selectivas de acceso a las plazas vacantes comprometidas en la oferta de empleo de la UPV/EHU será aprobada por el Consejo de Gobierno a propuesta del Rector o Rectora, previa negociación con los órganos de representación del personal de administración y servicios en los términos establecidos en la legislación vigente. Esta convocatoria será publicada en el Boletín Oficial del País Vasco.

*Artículo 61.–* Las bases de las convocatorias de pruebas selectivas para el acceso a la condición de personal funcionario o personal contratado laboral fijo al servicio de la UPV/EHU deberán contener necesariamente:

a) El número de vacantes, grupo, cuerpo y escala o categoría laboral a la que correspondan y el porcentaje que se reserva para la promoción interna.

b) Los requisitos que deben reunir las y los aspirantes.

c) Las pruebas, programas y, en su caso, relación de méritos, así como los criterios y normas de valoración.

d) La composición del tribunal u órgano técnico de selección.

e) Kasuan-kasuan eskatuko den prestakuntza ikastaro selektiboaren edo praktikaldiaren ezaugarriak, beharrezkoa izanez gero.

*62. artikulua.*– 1.– UPV/EHUk funtzionarioen barne sustapena bultzatuko du, hau da, titulazio talde bateko kidego eta eskalatik goragokora pasatzea. Langileak hautatzeko prozesuetako oinarrietan legalki onartutako prozesu espezifikoei kalterik egin gabe, plazak gorde ahal izango dira UPV/EHUn lanean ari diren funtzionarioentzat, hots, kasuan kasuko eskalan sartzeko baldintzak beteko dituztenentzat.

2.– Lan kontratudun langileen barne sustapena indarrean egongo den hitzarmen kolektiboari jarraiki egingo da.

3.– Barne sustapenerako prozesuetan ezagutza proba orokorrak edo espezifikoak sar daitezke, bai eta prestakuntza ikastaro selektiboak eta objektibotasuna bermatzeko egokiak izan daitezkeen bestelako sistemak ere.

4.– Gobernu Kontseiluak garatuko du administrazio eta zerbitzuetako langileen karrera profesionalari buruzko arautegia, indarreko legeriari jarraiki eta administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkaritzaren iritzia kontuan hartuta.

*63. artikulua.*– Funtzionarioen lanpostuak funtzio publikoari buruzko arautegian adierazitako moduan beteko dira.

*64. artikulua.*– Errektoreak arautuko ditu aldi baterako premiei eta presazkoei erantzuteko egongo diren poltsak, campuska antolatu ahal izango direnak, kontuan hartuta gerentearen proposamena eta administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkaritza organoekin negoziatu ondoren. Edonola ere, berdintasun, merezimendu, gaitasun eta zabalkunde printzipioak bermatuko ditu.

*65. artikulua.–* 1.– UPV/EHUk administrazio eta zerbitzuetako langileen kanpoko zein barruko etengabeko prestakuntza bermatu, sustatu eta bultzatuko du, beren eginkizunak aurrera eramateko beharrezkoak diren gaitasuna, kalitatea eta espezializazioa eskura ditzaten. Prestakuntza eta Hobekuntza Batzordeak eginkizunen programa antolatuko du urtero, kontuan hartuta UPV/EHUren plan estrategikoa eta errektoreak urtero ezarriko dituen helburuak. Batzorde hori Gerentziaren eta administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkariek osatuko dute, modu parekatuan.

2.– Era berean, mugikortasuna bultzatuko du Europako Unibertsitate Eremuan eta administrazio eta zerbitzuetako langileek beste unibertsitate eta erakunde publiko edo pribatu batzuek antolatutako ekintzetan parte har dezatela, UPV/EHUren zerbitzuak hobetu ahal izateko.

e) La determinación, en su caso, de las características del curso selectivo o período de prácticas.

*Artículo 62.*– 1.– La UPV/EHU fomentará la promoción interna del personal funcionario consistente en el ascenso de cuerpo y escala de un grupo de titulación a otro del inmediato superior. En cada momento y sin perjuicio de los procesos específicos legalmente admitidos en las bases de la convocatoria de los procesos selectivos, podrán reservarse plazas para aquellos funcionarios y funcionarias que, prestando servicios en la UPV/EHU, reúnan los requisitos exigidos por la normativa vigente para el acceso a dicha escala.

2.– La promoción interna del personal contratado laboral se ajustará a lo establecido en el convenio colectivo vigente.

3.– Los procesos de promoción interna podrán incluir pruebas de conocimientos generales o específicos, cursos selectivos de formación y cualesquiera otros sistemas que resulten adecuados para garantizar la objetividad.

4.– Corresponde al Consejo de Gobierno, conforme a la legislación aplicable, oída la representación del personal de administración y servicios, desarrollar la normativa sobre la carrera profesional del personal de administración y servicios.

*Artículo 63.*– Los puestos de trabajo reservados a funcionarias y funcionarios se proveerán en los términos regulados por la normativa de función pública.

*Artículo 64.*– Para la cobertura de las necesidades temporales y urgentes, la Rectora o el Rector, a propuesta de la Gerencia y previa negociación con los órganos de representación del personal de administración y servicios, regulará el régimen de las bolsas, que podrán estar distribuidas por Campus, respetando en todo caso los principios de publicidad, igualdad, mérito y capacidad.

*Artículo 65.–* 1.– La UPV/EHU garantizará, promoverá y facilitará la formación permanente, tanto externa como interna, del personal de administración y servicios, con el fin de alcanzar grados de competencia, calidad y especialización óptimos en el desarrollo de sus funciones. La Comisión de Formación y Perfeccionamiento, en la que están representados de forma paritaria la Gerencia y el personal de administración y servicios, establecerá la programación anual de actividades, en consonancia con la planificación estratégica de la UPV/EHU y con los objetivos que anualmente establezca el Rector o Rectora.

2.– Asimismo, se incentivará la movilidad en el Espacio Europeo de Enseñanza Superior y la participación del personal de administración y servicios en actividades realizadas en otras Universidades o instituciones públicas o privadas encaminadas a la mejora de los servicios de la UPV/EHU.

3.– Administrazio eta zerbitzuetako langileei baimen bereziak eman ahal izango zaizkie unibertsitateko kudeaketa eta zerbitzuen kalitatea hobetzera zuzendutako prestakuntzako ekintzetarako, Gobernu Kontseiluak erabakiko dituen arauei jarraiki. Baimen horiek urte baterako izango dira gehienera.

4.– UPV/EHUk diru saila izango du aurrekontuan eskaera horietarako eta lanpostuko ordezkoa ordaintzeko.

***66. artikulua.–*** 1.– Hauek dira administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkaritza organoak:

a) Administrazio eta Zerbitzuetako Langileen Batzarra, administrazio eta zerbitzuetako langile funtzionarioen ordezkaritza organo bateratua.

b) Enpresa Batzordea, lan kontratudun langileen ordezkaritza organo bateratua.

c) Atal sindikalak, hau da, UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako langile funtzionarioen eta lan kontratudun langileen ordezkari diren organo sindikalak.

2.– Administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkaritza organoak beren arauen bidez eta estatutu hauetan xedatutakoari jarraiki arautuko dira.

3.– Hauek dira, besteak beste, administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkaritza organoen betekizunak:

a) Administrazio eta zerbitzuetako langileen lan baldintzen negoziazio kolektiboa.

b) Administrazio eta zerbitzuetako langileen defentsa lan gatazketan eta diziplina espedienteetan, interesdunak beren-beregi eskatuz gero.

c) Ondoko zereginetan parte hartzea, estatutu hauetan adierazitako moduan: administrazio eta zerbitzuetako langileen politika zehazteko lanetan; erreferentziako plantilla eta lanpostuen zerrenda definitzeko irizpideak prestatzeko zereginetan, bai eta lan eskaintza publikoa eta sustapen prozesuak prestatzeko zereginetan ere; administrazio eta zerbitzuetako langileen lan poltsak arautzeko lanetan; eta esleitu ahal izango zaizkien gainerakoetan.

V. KAPITULUA
PREMIA BEREZIAK DAUZKATEN PERTSONAK

***67. artikulua.–*** UPV/EHUk ekintzak bultzatuko ditu premia bereziak dauzkaten unibertsitateko kideek eta gainerako kideek aukera berdintasun berberak dauzkatela ziurtatzeko. Beraz, beharrezko baliabideak, informazioa, laguntza eta bitartekoak jarriko ditu premia bereziak dauzkaten pertsonen eskura.

3.– El personal de administración y servicios podrá disponer de licencias especiales de hasta un año para la realización de actividades formativas encaminadas a la mejora de la gestión universitaria y de la calidad de sus servicios, de acuerdo con las normas que establecerá el Consejo de Gobierno.

4.– La UPV/EHU establecerá la correspondiente previsión presupuestaria para atender estas peticiones y la cobertura de la sustitución en el puesto de trabajo.

***Artículo 66.–*** 1.– Los órganos de representación del personal de administración y servicios son:

a) La Junta de personal de administración y servicios, órgano de representación unitaria del personal de administración y servicios funcionario.

b) El Comité de Empresa, órgano de representación unitaria del personal contratado laboral.

c) Las Secciones Sindicales, órganos de representación sindical del personal de administración y servicios funcionario y contratado laboral con implantación en la UPV/EHU.

2.– Los órganos de representación del personal de administración y servicios se regirán por sus normas específicas y por lo dispuesto en los presentes Estatutos.

3.– Entre las funciones de los órganos de representación del personal de administración y servicios estarán:

a) La negociación colectiva de las condiciones de trabajo del personal de administración y servicios.

b) La defensa del personal de administración y servicios en los conflictos laborales y en los expedientes disciplinarios, a petición expresa de la persona incoada.

c) La participación, en los términos recogidos en estos Estatutos, en la definición de la política del personal de administración y servicios, en la elaboración de los criterios para la definición de la Plantilla de Referencia y la Relación de Puestos de Trabajo, así como de la oferta pública de empleo y los procesos de promoción y regulación de las bolsas de trabajo del personal de administración y servicios o cualquier otra que les sea asignada.

CAPÍTULO V
DE LAS PERSONAS CON NECESIDADES ESPECIALES

***Artículo 67.–*** La UPV/EHU promoverá acciones para favorecer que todas las personas de la Comunidad Universitaria que presenten necesidades especia- les dispongan de los medios, información, apoyos y recursos que aseguren la igualdad real y efectiva de oportunidades en relación con los demás componentes de la Comunidad Universitaria.

*68. artikulua.–* 1.– UPV/EHUk bermatu egingo die aukera berdintasuna ezintasunak dauzkaten ikasleei eta unibertsitateko gainerako kideei. Beraz, debekatu egingo du edozein diskriminazio mota eta ekintza positiboa bultzatuko du, aipatutako pertsonen parte hartzea erabatekoa eta eraginkorra izan dadin unibertsitatean.

2.– Ezintasunak dauzkaten ikasleak eta unibertsitateko gainerako kideak ezin izango dira izan diskriminatuak beren ezintasunagatik, ez zuzenean ez zeharka, unibertsitatera sartzeko prozesuan, bertan ari direnean, eta titulu akademikoak edo onartuta dauzkaten bestelakoak baliatzean.

3.– Ezintasunak dauzkaten ikasleek horrelakorik behar balute, unibertsitateko ikastegiek eta sailek esanguratsuak ez diren egokitzapen curricularrak egingo lituzkete eta ikasleen beharretara moldatutako tutoretza espezifikoak ezarriko.

4.– UPV/EHUk egokitu egin beharko du bere ingurunea, legeriak xedatutakoari jarraiki, ezintasunak dauzkaten pertsonak oztoporik gabe ibili ahal izan daitezen bertan.

5.– UPV/EHUk kontuan hartuko du ezintasunak dauzkaten pertsonei lana emateko arautegietan xedatutakoa, eta aplikatu egingo du langileak hautatu eta kontratatzean.

*69. artikulua.–* UPV/EHUk programa bereziak onartuko ditu, gainerako administrazio publikoekin elkarlanean, mota guztietako terrorismoaren biktimek eta genero indarkeriaren biktimek laguntza indibiduala, babesa eta beharrezko egokitzapenak izanditzaten irakaskuntzaren alorrean.

VI. KAPITULUA
DIZIPLINA ARAUBIDEA

*70. artikulua.–* 1.– Errektoreak hartuko ditu ikasleen, irakasle eta ikertzaileen, eta administrazio eta zerbitzuetako langileen diziplina araubideari buruzko erabakiak, indarrean egongo den legeriak beste organo bati esleitzen ez dizkionak.

2.– UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak onartuko du diziplina arautegia, kontuan hartuta errektorearen proposamena eta ikasleen, irakasle eta ikertzaileen, eta administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkaritza organoak entzun ondoren.

3.– Diziplina arautegiak behar beste bermatuko ditu interesdunen oinarrizko eskubideak eta prozedurari dagozkionak.

*71.artikulua.–* Unibertsitateko agintari hauei dagokie, beren eskumenen arabera, isilpeko informazioa jasotzea eta diziplina espedientea irekitzeko proposamena egitea: errektoreari, errektoreordeei, gerenteari,

*Artículo 68.–* 1.– La UPV/EHU garantizará la igualdad de oportunidades del alumnado y demás integrantes de la Comunidad Universitaria con discapacidad, proscribiendo cualquier forma de discriminación y estableciendo medidas de acción positiva tendentes a asegurar su participación plena y efectiva en el ámbito universitario.

2.– El alumnado y demás personas con discapacidad de la Comunidad Universitaria no podrán ser discriminadas por razón de su discapacidad ni directa ni indirectamente en el acceso, el ingreso, la permanencia y el ejercicio de los títulos académicos y de otra clase que tengan reconocidos.

3.– Cuando las circunstancias del alumnado con discapacidad así lo requieran, los Departamentos y Centros Universitarios procederán a realizar las adaptaciones curriculares no significativas y establecerán tutorías específicas en función de las necesidades de estos alumnos y alumnas.

4.– El entorno universitario de la UPV/EHU deberá ser accesible de acuerdo con las condiciones legalmente establecidas.

5.– La UPV/EHU observará las disposiciones normativas reguladoras de la reserva de empleo a favor de las personas con discapacidad, que serán de aplicación en los procesos de selección y contratación del personal.

*Artículo 69.–* La UPV/EHU, en coordinación con las restantes administraciones públicas, establecerá programas específicos para que las víctimas de todo tipo de terrorismo y de la violencia de género, puedan recibir la ayuda personalizada, los apoyos y las adaptaciones en el régimen docente.

CAPÍTULO VI
DEL RÉGIMEN DISCIPLINARIO

*Artículo 70.–* 1.– Corresponde al Rector o Rectora la adopción de las decisiones relativas al régimen disciplinario de estudiantes, personal docente e investigador y personal de administración y servicios que la legislación vigente no atribuya a otro órgano.

2.– El Reglamento disciplinario de la UPV/EHU será aprobado por el Consejo de Gobierno, a propuesta de la Rectora o el Rector y oídos los órganos de representación del alumnado, del personal docente e investigador y del personal de administración y servicios.

3.– El Reglamento disciplinario garantizará suficientemente los derechos sustantivos y procedimentales de las personas interesadas.

*Artículo 71.–* La apertura de información reservada y la propuesta de apertura de un expediente disciplinario corresponde, en el marco de sus respectivas competencias, a las autoridades universitarias siguientes: Rector o Rectora, Vicerrecto-

ikastegietako dekano eta zuzendariei, sailetako zuzendariei eta unibertsitateko ikerketa institutuetako zuzendariei. Ikastegietako edo campusetako ikasleen kontseiluetako buruak eta UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluko burua ere salatzaile izan ahalko dira aipatutako kasuetan.

*72. artikulua.–* 1.– Errektoreak aginduko du diziplina espedienteen instrukzioa egitea, eta berak ebatziko ditu.

2.– Errektoreak ikastegietako dekano eta zuzendariei eskuordetu ahal izango die diziplina arloko ahalmena hutsegite arinak direnean, tramiteak egin eta zigorrak jartzeko.

3.– Espedienteak tramitatzean behin-behineko neurriak hartu ahal izango dira.

*73. artikulua.–* 1.– Unibertsitateko kideek egin ditzaketen hutsegiteak edo arau husteak eta jarri beharreko zigorrak kasuan kasuko lege xedapenek arautuko dituzte.

2.– Arau husteak eta zigorrak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke. Zigorra sailkatzeko kontuan hartuko da zein izan den hutsa egin duenaren asmoa, zerbitzuan zelako nahastea sortu duen, kaltea zein izan den eta araua behin eta berriro hautsi duen.

VII. KAPITULUA
ALDEZLEA (UPV/EHUKO ARARTEKOA)

*74. artikulua.–* 1.– Aldezlea erakunde burujabe eta inpartziala da. Aldezleak bide alternatiboak bultzatuko ditu, aurkakoak izango ez direnak, unibertsitateko jarduera guztiekin zerikusia duten arazoak eta gatazkak ebazteko.

2.– UPV/EHUn gutxienez 10 urte lanean daramatzan edozein pertsona izan daiteke aldezle, eta errektoreordeen pareko estatusa izango du.

3.– Gobernu Kontseiluak proposatuko du, gehiengo osoz, aldezle izateko hautagaia, Klaustroak aukera dezan. Agintaldia bost urtekoa izango da, eta berriro aukeratu ahal izango da. Aukeratua izateko, beharrezkoa izango da Klaustroko bileran dauden kideen bi herenek aldeko botoa ematea.

*75. artikulua.–* 1.– Aldezleak unibertsitatearen kalitatea hobetzeko ahaleginak egingo ditu, esparru guztietan. Arazoak ahalik eta arinen bideratuko ditu eta eskubidea izango du bere lanaren gaiarekin zerikusia duten espediente eta dokumentu administratibo guztiak eskuratzeko.

2.– Aldezleak ofizioz nahiz alde batek eskatuta jardungo du, edo unibertsitateko kide batek edo

res y Vicerrectoras, Gerenta o Gerente, Decanos y Directores o Decanas y Directoras de Centros, Directoras y Directores de Departamentos y de Institutos Universitarios de Investigación. Así mismo, tendrá la consideración de denunciante a estos efectos, quien presida los Consejos de Estudiantes de Centro, Campus o el Consejo de Estudiantes de la UPV/EHU.

*Artículo 72.–* 1.– La instrucción de los expedientes disciplinarios se ordenará y resolverá por el Rector o Rectora.

2.– La Rectora o Rector podrá delegar en Decanos, Decanas y Directoras y Directores de Centro la competencia en materia disciplinaria que abarque todo su procedimiento de tramitación y sanción, para el supuesto de faltas leves.

3.– Durante la tramitación de los expedientes se podrán adoptar medidas de carácter provisional.

*Artículo 73.–* 1.– Las faltas o infracciones en que puedan incurrir los y las integrantes de la Comunidad Universitaria y las sanciones correspondientes se regirán por sus respectivas disposiciones normativas.

2.– Las infracciones y sanciones podrán ser leves, graves y muy graves. La graduación de las sanciones se realizará valorando la intencionalidad, perturbación del servicio, perjuicios causados y la reiteración o reincidencia.

CAPÍTULO VII
DEL O DE LA ALDEZLE (DEFENSOR O DEFENSORA UNIVERSITARIA DE LA UPV/EHU)

*Artículo 74.–* 1.– La Institución del Aldezle es independiente e imparcial. Promoverá la utilización de modos alternativos, no adversariales, para prevenir y resolver problemas y conflictos relacionados con la actividad universitaria en todos sus niveles.

2.– Podrá ser designada Aldezle cualquier persona con, al menos, diez años de servicios prestados en la UPV/EHU. Su estatus será equiparable al de Vicerrector o Vicerrectora.

3.– El Consejo de Gobierno propondrá, por mayoría absoluta, una persona candidata a Aldezle para su elección por el Claustro para un período de cinco años, con posibilidad de reelección. Resultará elegida si obtuviera los votos favorables de dos tercios de las y los miembros presentes del Claustro.

*Artículo 75.–* 1.– En el desarrollo de sus funciones, la o el Aldezle procurará siempre buscar la mejora de la calidad universitaria en todos sus ámbitos. Actuará con la mayor celeridad posible y tendrá derecho a acceder a toda clase de expedientes y documentación administrativa relacionada con el objeto que suscite su actuación.

2.– El o la Aldezle intervendrá ordinariamente a instancia de parte, a partir de las quejas o requerimien-

interes legitimoa duen norbaitek kexak edo eskakizun idatziak aurkeztu dituelako.

3.– Aldezleak ez du hartuko parte hauteskunde prozeduretan. Era berean, onartezintzat joko ditu epaitegietan erabakitzeke dauden gaiei buruzko kexak.

4.– Ezingo da jarri errekurtsorik aldezlearen gomendioen aurka.

*76. artikulua.*– 1.– Hauek dira aldezlearen eginkizunak:

a) Beharrezkoa den informazioa eskatzea unibertsitateko instantziei, bere helburuak bete ahal izateko.

b) Unibertsitateko edozein organotako arduradunen agertzea eskatzea, beharrezkoa bada eginkizunak aurrera eramateko.

c) UPV/EHUko kide anitzeko organoen bileretara joatea, beharrezkoa bada eginkizunak aurrera eramateko. Hori dela eta, kide anitzeko organoen bileretan aztertuko diren gaien zerrenda jaso beharko du garaiz.

d) Eskatuko zaizkion edo beharrezkotzat ikusiko dituen txostenak egitea, aurrera eramango dituen jardueren inguruan.

e) Berari helarazitako kexei irtenbidea emateko egokitzat hartuko dituen gomendioak ematea, bai eta unibertsitatearen kalitatea hobetzeko egokiak izan daitezkeen gomendioak ere.

f) ) Estatutu hauek edo indarrean egongo den legeriak esleituko dizkioten gainerako guztiak.

2.– Aldezleak bere eginkizunak betetzeko beharrezkoa diren giza baliabideak eta baliabide materialak izango ditu.

*77. artikulua.*– 1.– Aldezleak jardueren memoria aurkeztuko dio urtero Unibertsitateko Klaustroari. Egoki deritzonean, nahi dituen kasuak azaldu ahal izango ditu; halaber, kasuan kasuko zerbitzuen eta langileen aipamena egin ahal izango du.

2.– Aldezleari ez zaio irekiko espedienterik eginkizunak behar bezala aurrera eramatean adierazitako iritziengatik edo egindako ekintzengatik.

3.– Aldezleak hauetako arrazoiren batengatik utziko du kargua: berak eskatuta, beste karguren batekin bateragarri ez delako, agintaldia bukatu zaiolako, heriotzagatik edo ezintasunagatik, eta kondena irmoagatik. Era berean, aldezlea kargutik kentzeko eska diezaioke Unibertsitateko Klaustroak errektoreari, eginkizunak ez betetzeagatik edo eskubideak urratu dituzten jarduerengatik. Errektoreak hala egin beharko du, eskaera Klaustroko kideen herenak egin badu eta klaustrokideen bi herenek aldeko botoa eman badu.

tos escritos presentados por cualquier persona de la Comunidad Universitaria o con interés legítimo, o de oficio.

3.– La o el Aldezle no intervendrá en procedimientos electorales. Asimismo, declarará inadmisibles aquellas quejas sobre materias pendientes de resolución judicial.

4.– Las recomendaciones del o de la Aldezle no serán susceptibles de recurso alguno.

*Artículo 76.*– 1.– Corresponde al o a la Aldezle:

a) Recabar de las distintas instancias universitarias cuanta información considere oportuna para el cumplimiento de sus fines.

b) Solicitar la comparecencia de los y las responsables de cualquier órgano universitario, siempre que sea pertinente para el desarrollo de sus funciones.

c) Asistir a las sesiones de los órganos colegiados de la UPV/EHU que puedan resultar de su interés para el desarrollo de sus actuaciones. A tal fin, deberá recibir oportunamente copia del orden del día de las sesiones de los órganos colegiados.

d) Elaborar cuantos informes considere oportuno emitir en relación con las actuaciones en curso.

e) Efectuar las recomendaciones que considere adecuadas, tanto para la solución de las quejas sometidas a su conocimiento como para la mejora de la calidad universitaria.

f) ) Cualesquiera otras que le sean otorgadas en los presentes Estatutos o en la legislación en vigor.

2.– La o el Aldezle contará con los recursos humanos y materiales necesarios para la adecuada realización de sus funciones.

*Artículo 77.*– 1.– El o la Aldezle presentará al Claustro Universitario una Memoria anual de sus actividades. La Memoria podrá incluir una exposición detallada de los supuestos que considere oportunos, realizando, en su caso, mención expresa de los servicios y personal afectados.

2.– La o el Aldezle en ningún caso podrá ser expedientado por opiniones emitidas o actuaciones desarrolladas en el adecuado cumplimiento de sus funciones.

3.– Su cese se producirá en virtud de alguna de las siguientes causas: a petición propia, por incompatibilidad con otros cargos, por la expiración del mandato, por muerte o incapacidad o por condena firme. Asimismo, a iniciativa de un tercio de sus componentes, y por mayoría de dos tercios, el Claustro Universitario podrá proponer al Rector o Rectora, con carácter vinculante, el cese del o de la Aldezle por incumplimiento de sus obligaciones o por actuaciones que den lugar a lesión de derechos.

III. TITULUA

UNIBERTSITATEAREN JARDUNA

I. KAPITULUA
XEDAPEN OROKORRA

***78. artikulua.–*** Hauek dira UPV/EHUren oinarrizko jarduerak: irakaskuntza, ikaskuntza, ikerketa, unibertsitate hedakuntza, eta administrazio zerbitzuen bidez horiek guztiak kudeatu eta bideratzea.

II. KAPITULUA
UNIBERTSITATEKO IRAKASKUNTZA

***79. artikulua.–*** 1.– UPV/EHUko irakaskuntzaren helburua da:

a) Diziplina batean edo gehiagotan prestakuntza orokorra ematea jarduera profesionalari begira.

b) Prestakuntza aurreratua ematea, espezializatua edo diziplina anitzekoa, ikasketa edo lanbide espezializatura bideratua, edo, bestela, ikerlanetan hastera bultzatzea.

c) Prestakuntza aurreratua ematea ikerketa tekniketan.

d) Unibertsitate mailako bestelako prestakuntza osagarria edo bizitza osoko prestakuntza eskaintzea.

2.– Berrikuntza pedagogikoa bultzatzea, bai eta lankidetzan oinarritutako ikasteko modu dinamikoak ere.

3.– UPV/EHUko irakaskuntzak ikaslearen heziketa osoa izango du kontuan: izpiritu kritikoa bultzatuko du, bakean eta bizikidetzan oinarritutako balioak indartuko ditu eta gizarteratzea sustatuko du, guztia jasangarritasuna eta gizarte erantzukizuna oinarri hartuta eta, betiere, oinarrizko eskubideak errespetatuta eta gizonen eta emakumeen berdintasunaren errespetuari arreta berezia eskainiz.

4.– UPV/EHUk irakaskuntzaren kalitatea eta gizartearen premiekiko egokitasuna zainduko du, eta irakaskuntzaren jarraipena ziurtatuko, barne programen zein kanpokoen bidez. Barne programetan ikasleen partaidetza bermatuko da.

***80. artikulua***.– 1.– UPV/EHUn matrikulatzeko eskubidea izango dute legeetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten guztiek.

2.– Zenbait ikasketa edo titulaziotan sartzeko eskariak UPV/EHUk ezarritako plaza mugak kontuan hartuta onartuko dira, Gobernu Kontseiluak adostutako irizpideei jarraituz.

***81. artikulua.–*** UPV/EHUk lankidetza programak bultzatuko ditu, egoera larriagoetan dauden herrialde eta herrietako ikasleek unibertsitatean ikasteko

TÍTULO III

DE LA ACTIVIDAD UNIVERSITARIA

CAPÍTULO I
DISPOSICIÓN GENERAL

***Artículo 78.–*** La enseñanza, el aprendizaje, la investigación y la proyección universitaria, junto con su gestión y soporte a través de los servicios administrativos, constituyen las actividades básicas de la UPV/ EHU.

CAPÍTULO II
DE LAS ENSEÑANZAS UNIVERSITARIAS

***Artículo 79.–*** 1.– Las finalidades de las enseñanzas en la UPV/EHU serán:

a) La formación general en una o varias disciplinas, orientada a la preparación para el ejercicio de actividades de carácter profesional.

b) La formación avanzada de carácter especializado o multidisciplinar, orientada a la especialización académica o profesional, o bien a promover la iniciación de tareas investigadoras.

c) La formación avanzada en las técnicas de investigación.

d) Otra formación universitaria complementaria o el aprendizaje a lo largo de la vida.

2.– Se impulsará la innovación pedagógica y el aprendizaje dinámico y cooperativo.

3.– Las enseñanzas en la UPV/EHU contribuirán a la formación integral de sus estudiantes, fomentando el espíritu crítico, promoviendo valores de una cultura de paz y convivencia, así como la integración social, con criterios de sostenibilidad y responsabilidad social, siempre desde el respeto a los derechos fundamentales y con atención específica a la igualdad de mujeres y hombres.

4.– La UPV/EHU velará por la calidad de las enseñanzas impartidas y su adecuación a las necesidades de la sociedad, y asegurará el seguimiento tanto mediante programas internos como externos. En los programas internos se garantizará la participación del alumnado.

***Artículo 80.–*** 1.– Tendrán derecho a matricularse en la UPV/EHU quienes reúnan los requisitos legalmente establecidos.

2.– La admisión a las concretas enseñanzas o titulaciones quedará condicionada a los límites máximos de plazas establecidos para la UPV/EHU, en los tér- minos acordados por su Consejo de Gobierno.

***Artículo 81.–*** La UPV/EHU fomentará programas de cooperación para el acceso a la misma de estudiantes procedentes de países y pueblos desfavorecidos, con el objetivo de contribuir a su

aukera izan dezaten eta aurrerapen eta hobekuntzan laguntzeko, betiere, lankidetza esparruaren barruan.

*82.artikulua.*– 1.– Unibertsitateko ikasketa ofizialak hiru ziklotan daude egituratuta: gradua, masterra eta doktoregoa. Ikasketa horiek gaindituta kasuan kasuko titulu ofiziala lortzeko eskubidea izango du ikasleak.

2.– UPV/EHUk berezko tituluak lortzeko eskubidea dakarten unibertsitateko ikasketak eman ahal izango ditu. Titulu hauek onartu edo homologatu egin ahal izango dira, autonomia erkidegoko legediaren babesean.

3.– Horrez gain, UPV/EHUk unibertsitateko beste ikasketa batzuk ere eman ahal izango ditu, ikasketa osagarriak edo etengabeko prestakuntzakoak, baina ez da UPV/EHUko berezko titulurik lortuko.

*83. artikulua.*– 1.– Gobernu Kontseiluari dagokio titulu ofizialak lortzera bideratutako ikasketetarako prozedura zehaztea, eta tituluok ezartzeko, aldatzeko edo kentzeko proposamenak egitea unibertsitateko arautegiari jarraituz.

2.– Edozelan ere, graduko titulu berriak sortzeko ekimena, ikasketa planak egin edo berraztertzekoa eta ikasketak kentzekoa, errektoreari, Campuseko Batzarrari edo Ikastegiko Batzarrari dagokio.

*84. artikulua.–* 1.– Ikastegiak, sailak edo doktorego eskolak koordinatu egingo dira beren artean ikasketak garatzeko, eta errektoreak izango du azken erabakimena kontuan izanda kasuan kasuko txostenak.

2.– Oro har, matrikula egiteko epea ireki aurretik emango da ikasketa eskaintzaren berri, eta behar beste iragarriko da; guztia ezar daitekeen araudiari jarraituz.

*85.artikulua.*– 1.– Gobernu Kontseiluak onartuko du, Graduondoko Batzordearen proposamenari jarraituz, doktoregoko ikasketei buruzko arautegia, bai eta irakats betebeharretan izango dituen ondorioak ere.

2.– Doktoregoko ikasketak ezartzeko eta kentzeko ekimena errektoreari, sailei eta doktorego eskolei dagokie.

3.– UPV/EHUk beharrezko neurriak hartuko ditu unibertsitate arteko doktorego ikasketen eskaintza bultzatzeko estatuko zein nazioarteko sareetan.

4.– Doktore titulua lortzeko doktorego tesia gainditu behar da. UPV/EHUk neurriak hartuko ditu doktorego tesien originaltasuna eta kalitatea bermatze aldera.

*86.artikulua.*– 1.– Gobernu Kontseiluak arautuko ditu unibertsitateko berezko ikasketak eta uniber-

progreso y mejora en el marco de la colaboración establecida a estos efectos.

***Artículo 82.***– 1.– Las enseñanzas universitarias oficiales se estructurarán en tres ciclos: grado, máster y doctorado. La superación de tales enseñanzas dará derecho a la obtención de los títulos oficiales correspondientes.

2.– La UPV/EHU podrá impartir enseñanzas universitarias que darán derecho a la obtención de Títulos Propios. Estos títulos podrán ser objeto de reconocimiento u homologación, de conformidad con la legislación de la Comunidad Autónoma.

3.– Así mismo, la UPV/EHU podrá impartir otras enseñanzas universitarias, estudios complementarios y de formación continua no conducentes a la obtención de títulos propios de la UPV/EHU.

***Artículo 83.***– 1.– Corresponde al Consejo de Gobierno establecer el procedimiento, la propuesta de implantación, modificación o supresión de enseñanzas conducentes a la obtención de títulos oficiales conforme a lo previsto en la normativa universitaria.

2.– En todo caso, la iniciativa de creación de nuevos títulos de grado, de elaboración o revisión de planes de estudios y de supresión de estas enseñanzas corresponde al Rector o Rectora, a las Juntas de Campus o a las Juntas de Centro.

i) Plaza berriak eskatzea eta saileko langileen lanpostuen zerrendan egin beharreko aldaketak proposatzea.

j) Irakasleen lanari buruzko txosten arrazoituak egitea, irakaskuntza merezimenduak esleitu eta kontratuak berritze aldera.

k) Bere eskumenen esparruan, kontratuak egiteko baimena ematea, zientziaren, teknikaren edo artearen arloko lanak egiteko.

l) Venia docendi eman behar bada, aurretiko txostena egitea.

m) Indarreko legeriak, estatutuok eta hauek garatzeko arauek bere gain uzten dituzten gainerako guztiak, bai eta eskuordetzen zaizkionak ere.

3.– Batzorde Iraunkorrak beteko ditu, alde batetik, bere arautegiaren arabera kontseiluak eskuordetutako eginkizunak, eta, bestetik, kontseiluak une jakinetan eskuordetzen dizkionak. Edozelan ere, kontseiluak ezin izango dizkio eskuordetu ez zuzendaria aukeratzeko eskumena, ez saileko arautegia onartzekoa.

4.– Bileren aktak saileko arautegiak zehazten duen moduan zabalduko dira eta saileko kide guztien esku jarriko dira.

***212. artikulua.***– 1.– Zuzendaria Saileko Kontseiluak aukeratuko du, saileko kide diren irakasle eta ikertzaile iraunkor doktoreen artetik, eta UPV/EHUko errektoreak izendatuko du.

2.– Saileko zuzendaririk ez balego, Saileko Kontseiluaren bilerarako deia egingo da, oinarrizko arautegiak ezarrita daukanari jarraiki, hark behar diren neurriak har ditzan sailak behar bezala jarduteko.

3.– Zuzendariaren agintaldia lau urtekoa izango da eta ikastegiko arautegiak mugatu ahal izango du zuzendariak zenbat agintaldi egin ditzakeen segidan.

4.– Zuzendariek estatutuotako 180.2 artikuluan jasotako arrazoiengatik utziko dute kargua. Haien aurkako zentsura mozioa onartuz gero ere utziko dute kargua, Sailen Oinarrizko Arautegian aurreikusita dagoen legez.

***213. artikulua.***– Campus edo ikastegi desberdinetan diharduten sailetan sail atalak eratu ahal izango dira, Sailen Oinarrizko Arautegiaren arabera. Atalak koordinatzaile bat izango du.

***214. artikulua.***– 1.– Hauek dira saileko zuzendariaren eginkizunak:

a) Sailaren ordezkaria izatea.

b) Saileko Kontseiluko burua izatea, baita, dagokionean, saileko Batzorde Iraunkorreko burua ere, saileko arautegiari jarraiki.

i) Solicitar la dotación de nuevas plazas y proponer las modificaciones oportunas de las relaciones de puestos de trabajo de su personal.

j) Informar motivadamente sobre la actividad docente del profesorado a efectos de la asignación de méritos docentes y de renovación de contratos.

k) Autorizar la celebración de contratos para la realización de trabajos científicos, técnicos o artísticos, en el marco de su competencia.

l) Informar, en su caso, con carácter previo sobre la concesión de venia docendi.

m) Cuantas otras le otorguen la legislación vigente, los presentes Estatutos y sus normas de desarrollo, así como cuantas otras le sean delegadas.

3.– La Comisión Permanente ejercerá, en su caso, por delegación, aquellas funciones del Consejo que establezca su Reglamento y las que puntualmente le delegue éste. La delegación en ningún caso comprenderá la elección del Director o Directora ni la aprobación del Reglamento del Departamento.

4.– Las actas de cada sesión se difundirán y estarán a disposición de cualquier persona del Departamento en la forma que determine su Reglamento.

***Artículo 212.***– 1.– La o el Director es elegido por el Consejo del Departamento, de entre el personal docente e investigador permanente doctor miembro del mismo, y nombrado por la Rectora o Rector.

2.– En el supuesto de inexistencia de Directora o Director de Departamento, se convocará al Consejo de Departamento, conforme lo que disponga el Reglamento Marco, para que adopte las medidas opor- tunas que aseguren su funcionamiento.

3.– El mandato del Director o Directora será de cuatro años. El Reglamento de Departamento podrá limitar el número de mandatos consecutivos.

4.– Los y las Directoras cesan por las causas recogidas en el artículo 180.2 de estos Estatutos. También cesarán mediante la aprobación de una moción de censura, según lo previsto en el Reglamento Marco de Departamentos.

***Artículo 213.–*** En aquellos Departamentos que desarrollen sus actividades en distintos Campus o Centros Docentes se podrán constituir Secciones Departamentales, de conformidad con lo previsto por el Reglamento Marco de Departamentos, que preverá la existencia de un Coordinador o Coordinadora de Sección.

***Artículo 214.–*** 1.– Corresponden al Director o Directora del Departamento las funciones siguientes:

a) Representar al Departamento.

b) Presidir el Consejo del Departamento y, en su caso, su Comisión Permanente, de acuerdo con el Reglamento del Departamento.

c) Saileko kideen eskari eta proposamenak jaso eta bideratzea.

d) Saileko administrazio eta zerbitzuetako langileen zuzendari funtzionala izatea.

e) Sailaren urteko memoria, eginkizunen plana eta txosten ekonomikoa egitea.

f) ) Saileko kide anitzeko organoek hartutako erabakiak betetzea.

g) Irakaskuntza normaltasunez eta benetan eman dadin zaintzea.

h) Zientzia, teknika, giza zientzia eta artearen arloko ikerlanak egiteko sailak egiten dituen kontratuak sinatzea.

i) Saileko beste organo batzuei eman ez zaizkienak, unibertsitateko gobernu organoek eskuordetutakoak eta estatutuok nahiz indarreko legeriak esleitzen dizkiotenak.

2.– Era berean, lankidetza hitzarmenak ere sinatuko ditu, Gobernu Kontseiluaren jarraibideei eutsiz.

***215. artikulua.***– Errektoreak irakaslanetik salbuetsi ahal izango ditu zuzendariak, gehienez ere arduraldiaren erdiraino.

***216. artikulua.***– 1.– Saileko idazkaria errektoreak izendatuko du, zuzendariak proposatuta. Jardunean dagoen irakasle edo ikertzaile bat izango da.

2.– Honako hauek izango dira kargua uzteko arrazoi: dimisioa, heriotza, ezintasun legala, kargurako gaitasuna kenduta izatea, UPV/EHUko kide izateari uztea edo errektoreak hala erabakitzea, zuzendariak proposatuta.

3.– Idazkariak saileko gobernu, ordezkaritza eta administraziorako kide anitzeko organoen ekintza eta erabakien fede ematen du; akta liburuak egiteaz eta zaintzeaz arduratzen da eta ziurtagiriak egiten ditu, hala erabakienak nola saileko dokumentazio ofizialean jasota dauden ekintza edo gertakarienak.

## VII. KAPITULUA
## UNIBERTSITATEKO IKERKETA INSTITUTUETAKO, DOKTOREGO ESKOLETAKO ETA BESTELAKO GUNE, EGITURA EDO ENTITATEETAKO GOBERNU, ORDEZKARITZA, ZUZENDARITZA ETA KUDEAKETA ORGANOAK

***217. artikulua.***– 1.– Unibertsitateko ikerketa institutuetako zuzendariak institutuen ordezkariak dira eta institutuen zuzendaritza eta kudeaketa arruntaz arduratzen dira.

2.– Unibertsitateko ikerketa institutu bakoitzeko arautegiak zehaztuko du zelan osatuko den Institutuko Kontseilua (betiere institutuarekin zerikusia duten

c) Recibir y canalizar las peticiones y sugerencias de las personas integrantes del Departamento.

d) Dirigir funcionalmente al personal de administración y servicios adscrito al mismo.

e) Elaborar la Memoria anual, el Plan de actividades y el Informe económico del Departamento.

f) ) Ejecutar los acuerdos adoptados por los órganos colegiados del Departamento.

g) Supervisar la normal y efectiva impartición de la docencia.

h) Suscribir los contratos del Departamento para la celebración de trabajos de investigación científica, técnica, humanística o artística.

i) Cualesquiera otras que no estén atribuidas a otros órganos del Departamento o le deleguen los órganos de gobierno universitario o le sean asignadas por los presentes Estatutos o la legislación vigente.

2.– Le corresponderá, asimismo, la suscripción de convenios de colaboración en los términos que establezcan las directrices del Consejo de Gobierno.

***Artículo 215.***– Los y las Directoras podrán ser eximidas por el Rector o Rectora de sus obligaciones docentes hasta un máximo de la mitad de su dedicación.

***Artículo 216.***– 1.– La o el Secretario del Departamento será nombrado por el Rector o Rectora, a propuesta del Director o Directora. El nombramiento se hará de entre el personal docente e investigador en activo.

2.– Cesará por dimisión, fallecimiento, incapacidad legal, inhabilitación, por dejar de pertenecer a la UPV/EHU y por resolución de la Rectora o Rector, a propuesta de la Directora o Director.

3.– El o la Secretaria es la fedataria de los actos y acuerdos de los órganos colegiados de gobierno, representación y administración del Departamento, cuida de la formación y custodia de los libros de actas y libra las certificaciones oportunas de los acuerdos y de cuantos actos o hechos consten en la documentación oficial del Departamento.

## CAPÍTULO VII
## DE LOS ÓRGANOS DE GOBIERNO, REPRESENTACIÓN, DIRECCIÓN Y GESTIÓN DE LOS INSTITUTOS UNIVERSITARIOS DE INVESTIGACIÓN, ESCUELAS DE DOCTORADO Y DEMÁS CENTROS, ESTRUCTURAS O ENTIDADES

***Artículo 217.***– 1.– Los Directores o Directoras de Institutos Universitarios de Investigación ostentan la representación de éstos y ejercen las funciones de dirección y gestión ordinaria de los mismos.

2.– El Reglamento interno de cada Instituto Universitario de Investigación propio determinará la composición y competencias de su Consejo de Insti-

kidego guztiak ordezkatuta egotea bermaturik), zein eskumen izango dituen Kontseiluak, zeintzuk izango diren zuzendaria hautatzeko arauak (doktoreen artetik hautatuko da) eta zein eskumen izango dituen.

3.– Ikerketa institutu misto edo atxikiek eta UPV/EHUk irakaskuntza, ikerketa, kultura edo unibertsitate hedakuntzarako sortutako bestelako unitate misto edo entitateek jardungo dute haien sorrera edo atxikipena xedatu zuen erabaki edo hitzarmenaren arabera.

***218. artikulua.***– Doktorego eskolak Batzarra edo Kontseilua eta zuzendaria izango du, oinarrizko arautegiak zehazten duen bezala hautatuko edo izendatuko direnak.

***219. artikulua.***– Gobernu Kontseiluak arautuko ditu UPV/EHUn sortzen diren nortasun juridikorik gabeko gainerako egitura edo entitateak.

***220. artikulua.***– Gobernu Kontseiluak berenberegi eman beharko du baimena unibertsitateko kideek parte hartzeko UPV/EHUk berak sortutako edo UPV/EHUren eskuhartzeaz sortutako erakunde edo enpresa publiko edo pribatuetako administrazio kontseiluetan edo gobernu organoetan.

VIII. TITULUA

UPV/EHUren EKONOMIA ETA FINANTZA ARAUBIDEA

I. KAPITULUA
XEDAPEN OROKORRA

***221. artikulua.***– 1.– UPV/EHUk autonomia dauka ekonomia eta finantzetan, eta bere eginkizunak betetzeko behar dituen ekonomia eta finantza baliabideak eta ondasunak izango ditu.

2.– Fondoak eduki eta kudeatzen dituzten unitate guztiek honako printzipio hauek hartuko dituzte aintzat: legezkotasuna, eraginkortasuna, gardentasuna, elkartasuna eta UPV/EHUri eta gizarteari ahalik eta zerbitzurik onena ematea.

II. KAPITULUA
UPV/EHUREN ONDAREA

***222. artikulua.***– 1.– UPV/EHUren ondarea unibertsitateak jabetzan edo titularitatean dituen ondasun eta eskubideek osatuko dute, bai eta etorkizunean eskuratzen edo esleitzen zaizkion gainerako guztiek ere, betiere arau orokorrei men eginez.

2.– UPV/EHUk jasotzen dituen dohaintzak eta erosten duen material inbentariagarri eta bibliografikoa unibertsitatearen ondarean sartuko dira, nahiz eta horrek ez duen eragotziko gerora haien erabilera beste erakunde batzuei esleitu ahal izatea.

tuto, en el que se garantizará la representación de todos los sectores relacionados con el mismo y las normas para la elección, entre doctoras y doctores, del Director o Directora y sus competencias.

3.– En los Institutos Universitarios de Investigación mixtos o adscritos, así como en el caso de las demás unidades mixtas o entidades creadas por la UPV/EHU para el desarrollo de funciones docentes, investigadoras o de proyección cultural y universitaria se estará a lo dispuesto en el correspondiente acuerdo de creación o convenio de adscripción.

***Artículo 218.***– La Escuela de Doctorado contará con una Junta o Consejo y una Directora o Director que se elegirán o designarán conforme al Reglamento Marco.

***Artículo 219.***– El Consejo de Gobierno regulará las demás estructuras o entidades sin personalidad jurídica que pudieran crearse en la UPV/EHU.

***Artículo 220.***– Corresponde, en todo caso, al Consejo de Gobierno autorizar expresamente la participación de personas integrantes de la Comunidad Universitaria en los Consejos de Administración u órganos de gobierno de entidades o empresas públicas o privadas creadas por la UPV/EHU o con su participación.

TÍTULO VIII

DEL RÉGIMEN ECONÓMICO Y FINANCIERO DE LA UPV/EHU

CAPÍTULO I
DISPOSICIÓN GENERAL

***Artículo 221.***– 1.– La UPV/EHU tiene autonomía económica y financiera y dispondrá de los bienes y recursos económico-financieros suficientes para el desempeño de sus funciones.

2.– Todas las unidades que dispongan y gestionen fondos se atendrán a los principios de legalidad, eficacia, transparencia, solidaridad y mejor servicio a la UPV/EHU y a la sociedad.

CAPÍTULO II
DEL PATRIMONIO DE LA UPV/EHU

***Artículo 222.***– 1.– El patrimonio de la UPV/ EHU está constituido por el conjunto de bienes y derechos cuya propiedad o titularidad ostente y cuantos otros adquiera o le sean atribuidos en el futuro, conforme a la normativa general.

2.– Se incorporarán al patrimonio de la UPV/ EHU las donaciones que reciba y el material inventariable y bibliográfico que se adquiera, sin perjuicio de la posterior adscripción de su uso a otras entidades.

3.– Unibertsitateko kide guztien eginbeharra da UPV/EHUren ondarea zaintzea eta egokiro erabiltzea.

4.– Jabetza publikoko eremu, eraikin eta lokalak atxikita dauden zerbitzu eta zereginetarako erabiliko dira lehentasunez, eta unibertsitateko arduradunek behar diren neurriak hartu ahal izango dituzte bateraezinak diren jarduerak bildu ez daitezen.

5.– UPV/EHUk bere ondarea eratzen duten ondasun eta eskubide guztien inbentarioa izango du, eta aldian-aldian eguneratuko.

***223. artikulua.***– Jabetza publikoko ondasunen eta bere ondarearen administrazioan eta erabileran UPV/EHUk arlo horretako kasuan kasuko legeriari jarraituko dio.

## III. KAPITULUA
## EKONOMIA ETA FINANTZA BALIABIDEAK

***224. artikulua.***– UPV/EHUren ekonomia eta finantza baliabideak honako hauek izango dira: hartzen dituen diru laguntzak, Unibertsitate Planetik hartzen dituenak, jabetzan dituen eskubide eta akzioak, ematen dituen zerbitzuetatik datozkion sarrerak, bere jarduerek ematen dizkiotenak eta bere ondarearen etekinak.

***225. artikulua.–*** Bere helburuak betetzeko, UPV/EHUk honako baliabide hauek izango ditu:

a) Euskal Autonomia Erkidegoak urtero egiten dizkion gastu arruntetarako eta kapital gastuetarako transferentziak. Horiek UPV/EHUk bere zeregin arruntak betetzeko adinakoak izan beharko dira.

b) Inbertsioen Urte Anitzerako Planeko eta indarreko programa kontraturako fondoak.

c) Unibertsitateko titulu ofizialetako ikasketei loturiko zerbitzu akademikoen eta legean jasotako gainerako eskubideen diru sarrerak, Euskal Autonomia Erkidegoak horretaz xedatzen duenaren arabera.

d) Berezko ikasketei, espezializazio ikastaroei eta UPV/EHUk modu autonomoan antolatzen dituen gainerako jarduerei dagozkien zerbitzu akademiko eta administratiboen diru sarrerak.

e) Erakunde publiko eta pribatuek egindako transferentziak eta herentzia, legatu eta dohaintzetatiketorritako diru sarrerak.

f) ) Bere ondarearen etekinak, eta indarreko arauei jarraiki unibertsitateak burutzen dituen bestelako jarduera ekonomikoetatik etorritako sarrerak.

g) Unibertsitateari buruzko Lege Organikoko 83. artikuluan aurreikusten diren kontratuetatik

3.– Incumbe a toda la Comunidad Universitaria la conservación y correcta utilización del patrimonio de la UPV/EHU.

4.– Los espacios, edificios y dependencias de dominio público se destinarán prioritariamente a los usos relativos a los servicios y actividades a los que se encuentran adscritos, pudiendo los responsables universitarios adoptar aquellas medidas que eviten la realización de actividades incompatibles.

5.– La UPV/EHU mantendrá un inventario actualizado de todos los bienes y derechos que componen su patrimonio.

***Artículo 223.***– La administración y disposición de los bienes de la UPV/EHU de dominio público y de los patrimoniales se ajustará a la legislación que rija en cada caso en esta materia.

## CAPÍTULO III
## DE LOS RECURSOS ECONÓMICO-FINANCIEROS

***Artículo 224.***– Los recursos económico-financieros de la UPV/EHU estarán integrados por todos los ingresos que se deriven de las subvenciones que reciba, del Plan Universitario, de los derechos y acciones de los que sea titular, de los procedentes de los servicios que preste, de las actividades que desarrolle y de los rendimientos de su Patrimonio.

***Artículo 225.***– Para el cumplimiento de sus fines, la UPV/EHU contará con los siguientes recursos:

a) Las transferencias para gastos corrientes y de capital fijadas, anualmente, por la Comunidad Autónoma del País Vasco, que deberán cubrir las actividades ordinarias de la UPV/EHU.

b) Las dotaciones correspondientes al Plan Plurianual de inversiones y a los fondos destinados al contrato programa vigente en cada momento.

c) Los ingresos por la prestación de servicios académicos y demás derechos legalmente establecidos, correspondientes a enseñanzas conducentes a títulos universitarios de carácter oficial, de acuerdo con lo que al respecto establezca la Comunidad Autónoma del País Vasco.

d) Los ingresos por la prestación de servicios académicos y administrativos correspondientes a enseñanzas propias, cursos de especialización y demás actividades autónomamente establecidas por la UPV/ EHU.

e) Los ingresos procedentes de transferencias de entidades públicas y privadas, así como de herencias, legados o donaciones.

f) ) Los rendimientos procedentes de su patrimonioy de aquellas otras actividades económicas que se desarrollen según lo previsto en la normativa vigente.

g) Todos los ingresos procedentes de los contratos previstos en el artículo 83 de la Ley Orgánica de

etorritako diru sarrerak, Gobernu Kontseiluak kontratu horietarako zehazten duen araubide ekonomikoaren arabera.

h) Euskal Autonomia Erkidegoaren baimenaz unibertsitateak egiten dituen mailegu eragiketen emaitzak.

i) Altxortegiko soberakinak.

j) Bestelako diru sarrerak.

IV. KAPITULUA
EKONOMIA ETA FINANTZEN KUDEAKETA

***226. artikulua.–*** 1.– Gobernu Kontseiluak, gerentearen proposamenez, UPV/EHUren ondarearen eta haren ekonomia eta finantza baliabideen kudeaketa arautuko du. Gobernu Kontseiluak antolaketarako neurriak edo bestelakoak hartu ahal izango ditu, aurrekontua egoki gauza dadin bermatzeko.

2.– Gerentearen eskumena da ondarea eta ekonomia eta finantza baliabideak kudeatzea, estatutu hauetan administrazio organoetarako ezarrita dagoena eragotzi barik.

3.– Ondarearen eta ekonomia eta finantza baliabideen kudeaketarako arautegia Gobernu Kontseiluak onartuko du.

***227. artikulua.–*** Ekonomia eragiketa guztiak behar bezala kontabilizatuko dira UPV/EHUko kontabilitate erregistroetan, ekitaldiaren kitapena egiteko egin behar den urteko txosten ekonomikoan sartze aldera.

***228. artikulua.–*** 1.– UPV/EHUk bere helburuak betetzeko behar dituen egintza eta negozio juridiko guztiak sinatu ahal izango ditu, honi dagokion legerian ezarritako muga eta baldintzen barruan.

2.– Bere kontratuak tramitatzean UPV/EHUk printzipio hauek beteko ditu: lizitazioetara aurkezteko askatasuna, prozeduren publizitatea eta gardentasuna, bereizkeriarik eza eta hautagai guztien tratu berdina.

***229. artikulua.–*** Kontratazio organoak, gerentearen proposamenez eta legezkotasun txostena jaso ondoren, UPV/EHUren administrazio baldintza zehatzen orrien ereduak onartuko ditu, kontratazio administratiboan aplikatu beharreko legeriak arautzen dituen obra, hornigai eta zerbitzuen kontratuetarako.

***230. artikulua.–*** 1.– UPV/EHUko kontratazio organoa errektorea da, ahalmen hori eskuordetu badezake ere.

2.– Kontratazio administratiboari buruzko arauek Kontratazio Mahaia eratzea eskatzen dutenean,

Universidades, de acuerdo con el régimen económico que para dichos contratos establezca el Consejo de Gobierno.

h) El producto de las operaciones de crédito que concierte, previa autorización de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

i) Los remanentes de Tesorería.

j) Cualquier otro ingreso.

CAPÍTULO IV
DE LA GESTIÓN ECONÓMICO-FINANCIERA

***Artículo 226.–*** 1.– El Consejo de Gobierno, a propuesta de la o del Gerente, regulará la gestión del patrimonio y de los recursos económico-financieros de la UPV/EHU. El Consejo de Gobierno podrá adoptar medidas organizativas y de otro orden, con la finalidad de garantizar la correcta ejecución del presupuesto.

2.– La gestión de los recursos económicofinancieros y del patrimonio es competencia del o de la Gerenta, sin perjuicio de lo dispuesto en los presentes Estatutos para los diferentes órganos de administración.

3.– La normativa reguladora de la gestión del patrimonio y de los recursos económico-financieros se aprobará por el Consejo de Gobierno.

***Artículo 227.–*** Todas las operaciones económicas serán debidamente contabilizadas en los registros contables de la UPV/EHU a efectos de su inclusión en el Informe económico anual correspondiente a la liquidación del ejercicio.

***Artículo 228.–*** 1.– La UPV/EHU podrá suscribir cualesquiera actos y negocios jurídicos necesarios para la realización de sus fines dentro de los límites y condiciones establecidos en la legislación que en esta materia le sea aplicable.

2.– La UPV/EHU llevará a cabo la tramitación de sus contratos ajustándose a los principios de libertad de acceso a las licitaciones, publicidad y transparencia de los procedimientos y no discriminación e igualdad de trato entre las y los candidatos.

***Artículo 229.–*** El órgano de contratación, a propuesta de la o del Gerente y previo informe de legalidad, aprobará los modelos de pliegos de cláusulas administrativas particulares de la UPV/EHU para la contratación de obras, suministros y servicios de los regulados en la legislación aplicable a la contratación administrativa.

***Artículo 230.–*** 1.– El órgano de contratación de la UPV/EHU es la Rectora o Rector, sin perjuicio de las delegaciones que efectúe.

2.– En aquellos supuestos en los que por la normativa de contratación administrativa se exija la

errektoreak zehaztuko du zelan osatuko den mahaia, eginkizun hori eskuordetu badezake ere.

## V. KAPITULUA
## URTE ANITZERAKO PROGRAMAZIOA

***231. artikulua.***– 1.– Inbertsio eta azpiegituren urte anitzerako programazioa Gobernu Kontseiluak egingo du eta gero Gizarte Kontseiluari bidaliko dio, onar dezan.

2.– Unibertsitate Planean zehaztu ahal izango da unibertsitateak programa-kontratuen bidez jasoko duen urte anitzerako finantzazioa.

***232. artikulua.***– 1.– UPV/EHUk urteko aurrekontu bat izango du, bakarra, publikoa eta orekatua. Urte naturaleko sarrera eta gastuak bilduko ditu. Euskal Autonomia Erkidegoak hitzartutako diru laguntza arrunta globala izango da, eta irakaslan nahiz ikerketa lan arrunta ziurtatzeko adinakoa.

2.– Sarrera eta gastuen kopuruak kalkulu arrazoituetan oinarrituko dira. Diru sarrerak behin-behinekoak izango dira eta gastuak, berriz, gehieneko zenbateko batekin onartuak.

3.– Ekitaldi bakoitzeko aurrekontuarekin batera aurrekontua gauzatzeko oinarri eta arau batzuk ere egongo dira, gastua modu deszentralizatuan kudeatzea bermatuko dutenak eta ekitaldi horretako ekonomia eta finantza jardunerako izango direnak.

4.– Eranskin bat ere izango dute, non UPV/EHUren entitate instrumentalen sarrera eta gastuen kalkulua jasoko den, erakunde horien gobernu organoek onartua.

***233. artikulua.***– 1.– Sarreren egoera orrian diru iturri guztien nondik norakoak zehaztuko dira, eta haien zenbateko osoari erantsi beharko zaio gerakin orokorra, hau da, aurreko ekitaldiaren kitapenetik sortutako soberakina, gerakin espezifikoa behin kendu ondoren.

2.– Honako hauek joko dira gerakin espezifikotzat (eta beraz, kreditua sortuko dute hurrengo ekitaldirako eta hasieran horien esleipendun izan ziren atal funtzionalen esku geratuko dira):

a) Ikerketa proiektu eta azpiegituretarako diren kreditu erabili gabeak.

b) Kanpoko baliabideez hornitutakoak diren eta helburu jakin batzuetarako diren kreditu erabili gabeak.

c) Hartuta dauden baina arrazoi sendoengatik bete ezin izan diren konpromisoen gastuei dagozkien kreditu erabili gabeak.

constitución de una Mesa de Contratación, el Rector o Rectora determinará su composición, sin perjuicio de las delegaciones que efectúe.

## CAPÍTULO V
## DE LA PROGRAMACIÓN PLURIANUAL

***Artículo 231.***– 1.– La programación plurianual de inversiones e infraestructuras será elaborada por el Consejo de Gobierno y se remitirá al Consejo Social para su aprobación.

2.– El Plan Universitario podrá determinar la financiación plurianual universitaria a través de contratos-programa.

***Artículo 232.***– 1.– La UPV/EHU contará con un presupuesto anual, único, público y equilibrado, que contendrá los ingresos y gastos del año natural. La subvención ordinaria acordada por la Comunidad Autónoma del País Vasco, que tendrá carácter global, asegurará el normal funcionamiento de la actividad docente y de investigación de carácter ordinario.

2.– Las cifras correspondientes a ingresos y gastos se establecerán con base en estimaciones razonadas. Los ingresos tendrán carácter provisional y los gastos carácter limitativo o de autorización general.

3.– El Presupuesto del ejercicio irá acompañado de unas normas y bases de ejecución que garantizarán la gestión descentralizada del gasto y constituirán la normativa a que debe ajustarse la actuación económico-financiera en ese período.

4.– En documento anexo constará la estimación de ingresos y gastos de las entidades instrumentales de la UPV/EHU, aprobada por el correspondiente órgano de gobierno de aquéllas.

***Artículo 233.***– 1.– El estado de ingresos detallará la naturaleza de las distintas fuentes de financiación a cuyo importe total deberá sumarse el remanente genérico, originado por el excedente en la liquidación del ejercicio anterior, una vez aplicado el remanente específico.

2.– Se considerarán remanentes específicos y por lo tanto generarán crédito en el ejercicio siguiente, quedando como saldos a disposición de las unidades funcionales a las que fueron inicialmente asignados, los siguientes:

a) Los créditos pendientes de ejecución correspondientes a proyectos e infraestructuras de investigación.

b) Los créditos pendientes de ejecución dotados con recursos externos finalistas.

c) Los créditos pendientes de ejecución correspondientes a gastos que amparen compromisos contraídos y que por causas justificadas no hayan podido realizarse.

3.– Kredituen gerakin espezifikoek espezifiko izateari utziko diete berez zegokien jarduera amaitu eta hurrengo ekitaldia bukatzean.

***234. artikulua.***– 1.– Gastuen egoera orrian gastuaren kontzeptu guztiak eta zenbatekoak zehaztuko dira. Honako xehetasun hauek adierazita sailkatuko dira gastuak:

a) Gastu mota.

b) Programa edo helburua.

c) Gastu gunea.

d) Bestelakoak, unean-unean erabakiko direnak.

2.– Betiere, gastu arrunta eta inbertsio gastua bereiziko dira.

***235. artikulua.–*** 1.– Errektoreak aurrekontuaren proiektua aurkeztuko dio urtero Gobernu Kontseiluari, onar dezan.

2.– Gobernu Kontseiluak onartutako proiektua Gizarte Kontseiluari aurkeztuko zaio, behin betiko onar dezan.

***236. artikulua.–*** Aurrekontuan aldaketak egiteko indarreko arau orokorrei jarraikiko zaie, eta ekitaldi bakoitzean unibertsitateko aurrekontuari erantsiko zaion arautegiari.

***237. artikulua.***– Ekitaldiko lehen eguna baino lehen UPV/EHUko aurrekontua onartuko ez balitz, aurreko ekitaldiko aurrekontua luzatutzat joko da berez, harik eta aurrekontu berria onartu arte, Gobernu Kontseiluak ontzat jotzen dituen aldaketekin.

***238. artikulua.***– UPV/EHUk, Barne Kontroleko Zerbitzuaren bidez, bere gastu eta sarreren barne kontrola bermatuko du legezkotasun, eraginkortasun eta eragimen printzipioen arabera. Zerbitzu hori errektorearen menpe egongo da zuzenean eta autonomia funtzionala izango du Gerentziarekiko.

***239. artikulua.***– 1.– Urteko txosten ekonomikoa ekitaldi ekonomikoaren kontuak aurkeztu eta emateko dokumentua da.

2.– Urteko txosten ekonomikoa Gerentziak egingo du, legean aurreikusitako edukiak jasoz.

3.– Errektoreak Gobernu Kontseiluari eta Gizarte Kontseiluari aurkeztuko die txostena, onespena emateko hurrengo urteko lehen seihilekoan, eta gero Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernu Kontseiluari bidaltzeko.

***240. artikulua.***– UPV/EHUk erakunde baten kapitalean edo ondare fondoan parterik handiena daukanean edo erakunde horretako zuzendaritza organoetako kide gehienak UPV/EHUkoak direnean, erakunde horren urteko kontuak aurkeztuko zaizkie

3.– Los remanentes de crédito específicos perderán su condición de específicos al término del ejercicio siguiente al de finalización de la actividad para la que fueron asignados.

***Artículo 234.–*** 1.– El estado de gastos detallará todos los conceptos del mismo y su cuantía, y se presentará clasificando los gastos en las siguientes modalidades:

a) Por naturaleza.

b) Por programa o destino.

c) Por centro de coste.

d) Por aquellas que se determinen en cada momento.

2.– En todos los casos se distinguirá el gasto corriente y el de inversión.

***Artículo 235.–*** 1.– La Rectora o Rector someterá anualmente el anteproyecto de presupuesto a la aprobación del Consejo de Gobierno.

2.– El proyecto aprobado por el Consejo de Gobierno será elevado para su aprobación definitiva al Consejo Social.

***Artículo 236.–*** Las modificaciones del Presupuesto se ejecutarán de conformidad con la normativa vigente, según normativa presupuestaria anexa al Presupuesto de la Universidad para cada ejercicio.

***Artículo 237.***– En el supuesto de no aprobarse el Presupuesto de la UPV/EHU antes del primer día del ejercicio económico correspondiente, se entenderá automáticamente prorrogado el del ejercicio anterior hasta la aprobación del nuevo presupuesto con las adaptaciones que, en su caso, acuerde el Consejo de Gobierno.

***Artículo 238.–*** La UPV/EHU asegurará el control interno de sus gastos e ingresos, de acuerdo con los principios de legalidad, eficacia y eficiencia, a través del Servicio de Control Interno, que actuará con dependencia directa del Rector o Rectora y autonomía funcional respecto de la Gerencia.

***Artículo 239.–*** 1.– El Informe económico anual es el documento a través del cual se presentan y se rinden las cuentas del ejercicio económico.

2.– El Informe económico anual será elaborado por la Gerencia ajustándose al contenido legalmente previsto.

3.– La Rectora o Rector presentará el Informe al Consejo de Gobierno y al Consejo Social para su aprobación dentro del primer semestre del año siguiente y posterior remisión al Consejo de Gobierno de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

***Artículo 240.***– Las cuentas anuales de las entidades en las que la UPV/EHU tenga participación mayoritaria en el capital, fondo patrimonial equivalente o en sus órganos de dirección se presentarán al Consejo de Gobierno y al Consejo Social para su aprobación en los mismos plazos y

Gobernu Kontseiluari eta Gizarte Kontseiluari, UPV/EHUren epe eta prozedura berberekin.

IX. TITULUA

ESTATUTUAK ALDATZEA

***241. artikulua.***– Honakoek egin dezakete proposamena Estatutuak aldatzeko:

a) Errektoreak.

b) Gobernu Kontseiluak.

c) Klaustrokideen heren batek.

***242. artikulua.–*** 1.– Errektoreak proposatzen duenean Estatutuak aldatzea, aukera hauek izango ditu:

a) Klaustroko Mahaira zuzenean bidaltzea proposatzen duen testu berria eta aldaketarako arrazoien azalpena, horrek tramita dezan.

b) Klaustroko Estatutuen Batzordera jo eta adieraztea zein puntu proposatzen duen aldatzea, batzordeak testua idatz dezan. Errektoreak ontzat jotzen badu testu berria, Klaustroko Mahaiari bidaliko dio, tramita dezan.

2.– Estatutuak aldatzeko proposamena Gobernu Kontseiluak egiten duenean, testu berria proposatu beharko du eta aldaketarako arrazoiak eman. Testua gehiengo osoz onartua izan beharko da Gobernu Kontseiluan. Gero errektoreak Klaustroko Mahaira bidaliko du testua, horrek tramita dezan.

3.– Estatutuak aldatzeko proposamena klaustrokideen heren batek egiten duenean, testu berria proposatu beharko dute eta aldaketarako arrazoiak eman. Gero errektoreak Klaustroko Mahaiari bidaliko dio testua, tramita dezan.

***243. artikulua.***– 1.– Errektoreak Klaustroko Mahaiari bidaliko dio aldaketarako proposamena, eta Unibertsitateko Klaustroa biltzeko deia egingo du, ekimena aurkezten denetik hilabete biko epean gehienez, proposamenaz erabaki dezan.

2.– Klaustroaren arautegiak Estatutuak aldatzeko prozedura eta zuzenketak aurkezteko baldintzak arautuko ditu.

***244. artikulua.***– Estatutuak aldatzeko proiektuak aurrera egiteko beharrezkoa izango da bileran dauden klaustrokideen gehiengo osoak alde bozkatzea.

***245. artikulua.***– 1.– Errektorea, edo eskuordetzen duen pertsona, izango da Klaustroko Estatutu Batzordeko burua, eta idazkari orokorra izango da batzordekidea. Gainera, pertsonal irakasle eta ikertzaile doktore iraunkorreko lau ordezkarik, pertsonal irakasle eta ikertzaile doktore ez iraunkorreko eta pertsonal ez doktore iraunkorreko ordezkari batek, pertsonal irakasle eta ikertzailearen ordezkari batek, ikasleen bi ordezkarik eta administrazio eta zerbitzuetako pertsonalaren bi ordezkarik osatuko dute Estatutu Batzorde hori eta aipatutako sektore bakoitzeko kideek Klaustroan aukeratuko dituzte ordezkari horiek. Aukeratzeko prozesuan, emakume eta gizonen presentzia orekatua izateko bitartekoak jarriko dira.

procedimientos previstos para la UPV/EHU.

TÍTULO IX

DE LA REFORMA DE LOS ESTATUTOS

***Artículo 241***.– La iniciativa del proceso de reforma de los Estatutos corresponde:

a) al Rector o Rectora,

b) al Consejo de Gobierno.

c) a un tercio del Claustro.

***Artículo 242.–*** 1.– Cuando la iniciativa de reforma la lleve a cabo la Rectora o el Rector, éste podrá:

a) Remitir directamente a la Mesa del Claustro el texto de reforma propuesto, con su motivación, para que siga su tramitación.

b) Dirigirse a la Comisión Estatutaria del Claustro, indicándole los ámbitos a reformar, para que elabore un texto. Si el Rector o Rectora lo hace suyo, lo enviará a la Mesa del Claustro para que siga su tramitación.

2.– Cuando la iniciativa de reforma la lleve a cabo el Consejo de Gobierno, deberá proponer un texto con su motivación, adoptado por mayoría absoluta, que el Rector o Rectora trasladará a la Mesa del Claustro para que siga su tramitación.

3.– Cuando la iniciativa de reforma la lleve a cabo un tercio de las personas integrantes del Claustro, deberá proponer un texto con su motivación, que la Rectora o Rector tendrá que trasladar a la Mesa del Claustro para que siga su tramitación.

***Artículo 243.–*** 1.– Presentado un texto de reforma a la Mesa del Claustro, el Rector o Rectora convocará al Claustro Universitario para decidir sobre dicha reforma en un plazo máximo de dos meses a contar desde la presentación de la iniciativa.

2.– El Reglamento del Claustro regulará el procedimiento de reforma y los requisitos para la presentación de enmiendas.

***Artículo 244.–*** El proyecto de reforma prosperará de obtener el voto afirmativo de la mayoría absoluta de las y los miembros presentes del Claustro.

***Artículo 245.–*** 1.– La Comisión Estatutaria del Claustro estará presidida por la Rectora o Rector o persona en quien delegue y formará parte de la misma la o el Secretario General. Además, estará integrada por cuatro representantes del personal docente e investigador permanente doctor, uno del personal docente e investigador doctor no permanente y profesorado no doctor con vinculación permanente, uno del otro personal docente e investigador, dos representantes de alumnado y dos representantes del personal de administración y servicios, realizándose esta elección en el Claustro por y entre las y los propios miembros de cada uno de los sectores citados. El proceso de elección articulará los medios para posibilitar una presencia equilibrada de mujeres y hombres.

2.– Hauek izango dira batzordearen eskumenak: Estatutuak aldatzeko proiektuak egitea edo irizpena ematea halako proiektuez; Klaustroaren arautegia egitea; eta bere gain uzten diren gainerako eskumen guztiak.

***246. artikulua.***– 1.– Onartutako aldaketak eta estatutu berrien testua Euskal Autonomia Erkidegoko gobernuari aurkeztu beharko zaizkio, legezkoak diren azter dezan eta gero Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara ditzan.

2.– Aldaketak onartutzat joko dira, baldin eta indarreko legeriak horretarako ezartzen duen epean Euskal Autonomia Erkidegoko gobernuak horien kontra berariazko erabakirik ematen ez badu.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Xedapen gehigarri bakarra.
Lotura iraunkorreko pertsonal irakasle eta ikertzaile ez doktorearen unibertsitate-komunitateko sektoreari estatutuetan egiten zaizkion aipamenak

Estatutuen erreforma hau indarrean sartzen denetik, pertsonal ez doktore iraunkorraren unibertsitate-komunitateko sektoreari egiten zaizkion erreferentziak pertsonal irakasle eta ikertzaile ez doktore iraunkorraren eta pertsonal doktore ez iraunkorraren sektoreari egiten zaizkiola interpretatuko da.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehen xedapen iragankorra. EHUko Ikasleen Kontseiluaren, campusetako Ikasleen Kontseiluen eta zentro edo ataleko Ikasleen Kontseiluen osaketa.

Azken xedapenetako lehenean aipatzen diren arau-aldaketak indarrean sartu arte, EHUko Ikasleen Araudian ezarritakoaren arabera jokatuko da EHUko Ikasleen Kontseiluaren, campusetako Ikasleen Kontseiluen eta zentro edo ataleko Ikasleen Kontseiluen osaketa erabakitzeko orduan, eta araudi horretan ezarritakoaren arabera beteko dira bakanteak.

Bigarren xedapen iragankorra. Pertsonal irakasle eta ikertzaile ez doktore iraunkorraren sektoreko eta beste pertsonal irakasle eta ikertzailearen sektoreko agintaldiaren iraupena.

2.– Serán competencias de esta Comisión la elaboración o el dictamen de los proyectos de reforma de los Estatutos, la elaboración del Reglamento del Claustro y aquellas otras que le sean encomendadas.

***Artículo 246.***– 1.– Las modificaciones aprobadas y el texto de los nuevos Estatutos resultantes serán elevados al Gobierno de la Comunidad Autónoma del País Vasco, para su control de legalidad y posterior publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

2.– Las modificaciones se entenderán aprobadas si el Gobierno de la Comunidad Autónoma del País Vasco no adopta resolución expresa en contrario dentro del plazo previsto en la legislación vigente.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

Disposición adicional única.

Referencias estatutarias al sector de la comunidad universitaria de personal docente e investigador no doctor con vinculación permanente.

A partir de la entrada en vigor de la presenta reforma estatutaria, aquellas referencias que se contengan en los mismos al sector de comunidad universitaria de personal no doctor con vinculación permanente se entenderán realizadas al sector de personal docente e investigador permanente no doctor y personal doctor sin vinculación permanente.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

Disposición transitoria primera. Composición del Consejo de Estudiantes de la UPV/EHU, de los Consejos de Estudiantes de los campus y de los Consejos de Estudiantes de centro o sección.

Hasta que entren en vigor las modificaciones normativas a las que se refiere la disposición final primera, la composición del Consejo de Estudiantes de la UPV/EHU, de los Consejos de Estudiantes de los campus y de los Consejos de Estudiantes de centro o sección se regirá por lo establecido en el Reglamento de Alumnado de la UPV/EHU, y las vacantes se cubrirán de conformidad con lo establecido en el mismo.

Disposición transitoria segunda. Duración del mandato representativo correspondiente al sector de personal docente e investigador no doctor permanente y del sector otro personal docente e investigador.

169. artikuluaren bigarren eta hirugarren tartekien, 175. artikuluaren 1. atalaren b) letraren eta 245. artikuluaren 1. atalaren aldaketa indarrean sartzen denean, aukeratuak izan ziren aldiak bukatu arte iraungo du, Klaustroan eta Gobernu Kontseiluan, pertsonal irakasle eta ikertzaile ez doktore iraunkorraren sektoreko eta beste pertsonal irakasle eta ikertzailearen sektoreko ordezkarien agintaldiak. Ordezkariak aukeratuak izan ziren unean indarrean zegoen erregimenaren arabera jokatuko da bakanteak betetzeko orduan.

Halaber, unibertsitateko gobernu-organo eta ordezkari batzuei aplikatuko zaie aurreko paragrafoan ezarritakoa, haien osaketa unibertsitate-komunitateko sektore desberdinek klaustroan dutenaren antzekoa baldin bada.

***Hirugarrena***.– 25.3 artikuluan aipatutako irizpideak onartu artean eta salbuespenez, errektoreak berak esleitu ahalko ditu irakaslanak beharrezkoa baldin bada zerbitzua bermatzeko.

***Laugarrena***.– Gobernu Kontseiluak batzorde berezi bat izendatu artean 34.6 artikuluan aurreikusitako erreklamazioetarako, estatutu hauetako 31.3 artikuluan aipatutako Erreklamazio Batzordeak ebatziko ditu erreklamazio horiek.

***Bosgarrena***.– 1.– Estatutu hauek indarrean sartzean 133.3 artikuluan aurreikusitako gutxieneko kide kopurua ez daukaten sailek lanean jarraitu ahal izango dute, baina kopuruari buruzko eskakizunak bete beharko dituzte, Sailen Oinarrizko Arautegian zehazten diren epe eta baldintzetan.

2.– 133.3 artikuluan adierazitako eskakizunei dagokienerako, Gobernu Kontseiluak irizpide bereziak jarri ahal izango ditu zeregin asistentzialak unibertsitatearekin ituna daukan ospitale batean betetzen duten irakasle eta ikertzaileentzat.

***Seigarrena***.– Estatutuok indarrean sartzean unibertsitateko ikerketa institutuei atxikitako irakasle eta ikertzaile ez-doktoreek hala izaten eta bertan betetzen dituzten zereginak betetzen jarraitu ahal izango dute.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabe geratzen dira UPV/EHUko aurreko Estatutuak, abenduaren 23ko 322/2003 Dekretuaren bidez onartuak; era berean, indargabe geratzen dira estatutu hauetan zehaztutakoaren kontra dauden xedapen guztiak.

A la entrada en vigor de la modificación de los incisos segundo y tercero del artículo 169, de la letra b), apartado 1, del artículo 175, y del apartado 1 del artículo 245, la representación del sector correspondiente al personal docente e investigador no doctor permanente y al sector otro personal docente e investigador en el Claustro y en el Consejo de Gobierno, mantendrá su mandato hasta la finalización del periodo para el cual fue elegida. Las vacantes se cubrirán de conformidad con el régimen vigente en el momento en que fue elegida la representación en la que se produzcan.

Lo establecido en el párrafo anterior será aplicable igualmente a aquellos órganos de gobierno y representación cuya composición refleje la de los distintos sectores de la comunidad universitaria en el Claustro.

***Tercera***.– Hasta que los criterios a que se refiere el artículo 25.3 no se hayan aprobado, el Rector o Rectora podrá realizar dicha asignación de tareas docentes, con carácter excepcional, cuando así lo requiera la garantía del servicio.

***Cuarta***.– Hasta tanto se establezca por el Consejo de Gobierno una comisión específica para los supuestos de las reclamaciones previstas en el artículo 34.6, dichas reclamaciones serán resueltas por la Comisión de Reclamaciones prevista en al artículo 31.3 de estos Estatutos.

***Quinta***.– 1.– Los Departamentos que, a la entrada en vigor de estos Estatutos, no cumplan con el mínimo de personas previsto en el artículo 133.3 podrán continuar su funcionamiento, pero deberán adaptarse a lo requerido en los términos y plazos que establezca el Reglamento Marco de Departamentos.

2.– A los efectos de los requisitos previstos en el artículo 133.3, el Consejo de Gobierno podrá establecer criterios específicos respecto del personal docente e investigador que realice funciones asistenciales exclusivamente en un Centro Hospitalario concertado con la Universidad.

***Sexta***.– El personal docente e investigador no doctor que, a la entrada en vigor de estos Estatutos, esté adscrito a un Instituto Universitario de Investigación propio podrá continuar en dicha condición y seguir desempeñando tal labor.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Quedan derogados los anteriores Estatutos de la UPV/EHU, aprobados por Decreto 322/2003, de 23 de diciembre, y cuantas disposiciones se opongan a lo establecido en estos Estatutos.

AZKEN XEDAPENA

Azken xedapenetako lehena. Ikasleen erregelamenduaren arau-egokitzea.

Gobernu Kontseiluak, EHUko Ikasleen Kontseiluari entzun ondoren, behar diren arau-aldaketak onartuko ditu, EHUko Ikasleen Araudia eta EHUko Ikasleen Kontseiluaren, campusetako Ikasleen Kontseiluen eta zentro edo ataleko Ikasleen Kontseiluen arautzea estatutuetara egokitzeko, bederatzi hilabeteko epean, EHUko estatutuen 20., 21. eta 22. artikuluen aldaketa indarrean sartzen denetik kontatzen hasita.

Azken xedapenetako bigarrena. Beste erregelamendu batzuen arau-egokitzea.

EHUko organo eskudunek behar diren arau-aldaketak onartuko dituzte, Klaustroan ordezkariak dituzten unibertsitate-komunitateko sektoreen kide anitzeko gobernu- eta ordezkaritza-organoen osaketa estatutuetara egokitzeko asmoz, bederatzi hilabeteko epean, otsailaren 15eko 17/2011 Dekretuaren bidez onartutako Euskal Herriko Unibertsitatearen estatutuen 169. artikuluaren bigarren eta hirugarren tartekien, 175. artikuluaren 1. apartatuaren b) letra eta 245. artikuluaren 1. apartatuaren aldaketa indarrean sartu zenetik kontatzen hasita.

Halaber, arau-egokitze hori EHUko Hauteskunde Erregimen Orokorraren Erregelamenduari ere aplikatuko zaio.

DISPOSICIÓN FINAL

Disposición final primera. Adecuación normativa del Reglamento de Alumnado.

En el plazo de nueve meses a contar desde la entrada en vigor de la modificación de los artículos 20, 21 y 22 de los Estatutos de la UPV/EHU, el Consejo de Gobierno aprobará, oído el Consejo de Estudiantes de la UPV/EHU, las modificaciones normativas necesarias al objeto de adecuar a los Estatutos el Reglamento de Alumnado de la UPV/EHU, la regulación del Consejo de Estudiantes de la UPV/EHU, de los Consejos de Estudiantes de los campus y de los Consejos de Estudiantes de centro o sección.

Disposición final segunda. Adecuación normativa de otros Reglamentos.

En el plazo de nueve meses a contar desde la entrada en vigor de la modificación del inciso segundo y tercero del artículo 169, de la letra b), apartado 1, del artículo 175, y del apartado 1 del artículo 245, de los Estatutos de la UPV/EHU, aprobados por Decreto 17/2011, de 15 de febrero, los órganos competentes de la UPV/EHU aprobarán las modificaciones normativas que correspondan al objeto de adecuar a los Estatutos, en los correspondientes Reglamentos, la composición de los distintos órganos colegiados de gobierno y representación a los sectores de la comunidad universitaria con representación en el Claustro.

Dicha adecuación normativa será aplicable igualmente al Reglamento de Régimen Electoral General de la UPV/EHU.